

OHIZ KANPOKO OSOKO BIKURAI 08/14

UDALAK 2014ko UZTAILAREN 29AN EGINDAKO OHIZ KANPOKO OSOKO BIKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aiginaga jn.

Naiara Sanchiz Arregi and.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Begoña Zuza Zabalegi and.

Jose Antonio Sanchez Almaraz jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Jose Antonio Cuesta Sole jn.

2014ko uztailaren 29 an ohizko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantza Arrazola Iturbe idazkari ordea.

KONTUHARTZAILAK:

Aitor Sarasola Salaberria jn.

IDAZKARI ORDEA:

Arantza Arrazola Iturbe and.

1.- 2014KO EKAINAREN 13TIK 2014KO UZTAILAREN 23RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. - 2014ko ekainaren 13tik 2014ko uztailaren 23ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da:

- * Alkate jn.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Kiroletako delegatu jn.
- * Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- * Politika Sozialeko delegatu jn.

2.- LH-29.1 (IBARRI)ZE) (GAUR EGUN UG.11.03) SEKTOREKO PLAN BEREZI AIDATUAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, PATXI DE ASSAS YAGÜESEK AURKEZTUA. - Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko apirilaren 11n egindako bileran LH-29.1 (Lizarraga) Areako Plan Bereziaren aldaketa puntuala hastapenez onartu zuen.

Espedientea jendaurrean ikusgai jarri da iragarriak T710n (2014-05-15) eta Gara (2014-05-14), Diario Vasco eta Berria egunkarietan (2014-05-14) argitaratuz. Epe horretan inork ez du alegaziorik aurkeztu.

Udaleko lege zerbitzuek egindako txostena ikusita,

Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 175. artikulua ezartzen duenarekin bat etorriz,

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen batzordeak 2014ko ekainaren 16an emandako irizpena.

Udalbatza legez eta izatez osatzen duten 17 zinegotzietatik bertan 11 zuek, hau erabaki da aho batez:

Lehen.- *11-29.1 (Lizarraga) Areako Plan Bereziaren aldaketa puntuala, Patxi de Assas Yagüesek sustatutakoa, behin betiko onartzea.*

Bigarrena.- *Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroa Antolamenduko Zati Planaren Aldaketaren ale bat, behar bezala diligentziatua, bidaltzea, bertan gordailuan utzi eta inskribatzeko, eta ale horrekin batera, behin betiko onarpen erabaki honen egiaztagiria ere bai.*

Hirugarrena.- *Autonomi Erkidegoko eta udaleko erregistroan gordailuan utzi eta inskribatu aurretik, behin betiko onarpen erabakia eta haren arauen artikulatuaren edukia GAO argitaratuko da. Bestalde, planeamendukorako tresnaren eduki osoa Udalaren web orrian ere argitaratuko da.*

3.- HERNANIKO HIRIGINTZA PLANEAMENDUAREN ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINAREN 1. ALDAKETA: PORTU/KARABEL (UE)PK.05 AREAREN HIRI LURZORU FINKATUAREN MUGAKETAREN ZUZENKETA. BEHIN-BETIKO ONARPENA. - *Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak, 2013ko azaroaren 26an egindako bilkuran, "Hernaniko Hirigintza Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 1. aldaketa: Portu/karabel (UE) PK.05 Arearen Hiri Lurzoru finkatuaren mugaketaren zuzenketa" Agiriari hasierako onarpena eman zion. Alipatu Agiria udal zerbitzu teknikoek idatzi dute 2013ko azaroan.*

Honako argitalpenak egin dira: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (2013-12-24), El Diario Vasco eta Berria egunkariak (2013-12-19) eta Gara egunkaria (2013-12-18).

Jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Udal-plangintzako Aholku-Batzordeak egin du Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legearen 109. artikuluan eta Hernaniko Udal Ereglamenduaren 5. artikuluan aurreikusitako txostena. Batzordeak Portu/Karabel (UE) PK.05 Arean Planeamendu Orokorra aldatzeko proposamenari dagokionez, aldeko txostena eman du 2014ko otsailaren 10ean.

Kontuan hartu behar da dagokigun kasuan sektoreko eskumenak dituzten Herri Administrazioei txostena emateko izapidea ez dela egin behar izan, aldaketaren izaera kontua harturik ez baita ematen ez 2006ko ekainaren 1/2006 Foru Dekretu Arau Emaileak onartutako Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren Testu Bateratuaren 94.1 artikuluan aurreikusitako kasurik Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturak Sailari dagokionez eta ezta ere Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 legearen 7.2 artikuluan aurreikusitako kasurik ADIFI dagokionez.

Kontuan hartu behar da baita ere, aldaketa proiektu hau ez dagoela sartuta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan aurreikusitako ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedurari lotu behar zaizkion ekintzen artean, dokumentuan proposatzen den hirigintza estatusaren zuzenketa hori ez baita lurzoru ez hiritargarri gisa birkalifikatzearekin pareagarria.

Pieza horren lurzoruaren sailkapena berraztertu beharrak (hiri lurzoru finkatua), soil-soilik kontzeptuala den zerbait izanik, ez baitakar inolako ekintza urbanorik, ez du ingurumenean inolako eraginik sortzen, ez zuzenean ez zeharka, eta ez ditu indarrean dagoen planeamendu orokorrak aurreikusten dituen lurzoru ez hirilargariaren babes zehaztapenak aldatzen ere. Azkenik, indarrean dagoen Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginak bere baitan zekarren "Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Ebaluazio Azterlana" dokumentuaren azterketa eta proposamenak ere ez baititu aldatzen dokumentu honek.

Kontuan izanda Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeak aldeko txostena eman duela.

Ikusita espedientean dagoen txosten juridikoa.

Kontuan harturik Toki Araubidearen Dinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 legearen 22.2.c eta 47.2.ii artikuluek diotena eta Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 legearen 91.1 artikulua dioena,

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen batzordeak 2014ko uztailaren 21ean emandako irizpena.

Udalbatza legez eta izatez osatzen duten 17 zinegotzietatik bertan 11 zuekela, hau erabaki da aho batez:

Lehen. *Hernaniko Hirigintza Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 1. aldaketa: Portu/karabel (UE) PK.05 Arearen Hiri Lurzoru finkatuaren mugaketaren zuzenketa" Agiriari behin-behiko onarpena ematea. Aipatu Agiria udal zerbitzu teknikoek idatzi dute 2013ko azaroan.*

Bigarrena. *Autonomi Erkidegoko eta udaleko erregistroan gordailuan utzi eta inskribatu aurretik, behin-behiko onarpen erabakia eta haren arauen artikulatuaren edukia GAO n argitaratuko da.*

Argitalpenak adierazi beharko du aurretik Hirigintza Planeamenduko Administrazio Erregistroa bidali dela.

4.- (HK) GA-05 SEKTORREKO IZENA AIDATZEA. - 2013-08-08 Zerbitzu Publikoetako batzordeak, eta 2014-08-27ko Osoko bilkuran, besteak beste, HK GA (Galarreta inguru) zonaldeei honako izenak ematea erabaki zuen:

- (HK) GA 05: EKOGOR (Orona Ideo zonaldea).
- (HK) GA 07: ESTUBEGI (Oriamendi aldapa igo eta eskuinetara. Gaur egun "estación de bombeo" kokatua dagoen zonaldea).
- (HK) GA 08 eta (HK) GA 09: UMURI (Oriamendi aldapa igo eta ezkerretara. Aintzinean Young Play dantzalekua kokatua zegoen eremua).

2014-06-19ko datarekin Udal Arkitektoa den Nora Erdozia Ibañez (HK) GA 05: Ekogor sektoreari izena aldatzeko txostena egin du. Bertan proposatzen du "Galarreta Parke Teknologikoa" izenagatik aldatzea.

Txostena aztertu ondoren.

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza batzordeak 2014ko uztailaren 14ean emandako irizpena.

Udalbatza legez eta izatez osatzen duten 17 zinegotzietatik bertan 11 zuekela, hau erabaki da aho batez:

- (HK) G1 05 Ekogor sektoreari izena aldatzea eta “Galarreta Parke Teknologikoa” jartzea.
- Aldaketaren akordio, “Galarretako kontzertazio Juntari” jakinaraztea

5.- KARDABERAZ KALEARI IZENA AIDATZEA. - Hernaniko Berdintasun kontseiluak 2014ko urtarrilan “Hernaniko kale eta plazetan berdintasun” izeneko proposamena aurkeztu zuen.

Bertan, proposatzen da: Egungo Kardabera kaleari Andreklae izena jartzea.

Hori horrela, 2014-06-17ko Osoko bilkuran gaia azaldu eta mahai gainean gelditu zen.

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza batzordeak 2014ko uztailaren 14ean emandako irizpena.

Udalbatza legez eta izatez osatzen duten 17 zinegotzietatik bertan 11 zeudela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Egungo Kardaberaz kaleari Andrekale izena jartzea.
- 2.- Erabakiaren berri beste Erakundeetara bidertzea.
- 3.- Erabakiaren berri, Hernaniko Udaletxeko beste zerbitzuetan ematea.

6.- GOIZ EGUZKIKO PARKEARI IZENA JARTZEA. - Hernaniko Berdintasun kontseiluak 2014ko urtarrilan “Hernaniko kale eta plazetan berdintasun” izeneko proposamena aurkeztu zuen.

Bertan, proposatzen da: Egungo Kardaberaz kaleari Andrekalea izena jartzea eta bide batez, Goiz Eguzkiko parkeari “Kardaberaz parkea” izena jartzea.

Hori horrela, 2014-06-17ko Osoko bilkuran gaia azaldu eta mahai gainean gelditu zen.

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza batzordeak 2014ko uztailaren 14ean emandako irizpena.

Udalbatza legez eta izatez osatzen duten 17 zinegotzietatik bertan 11 zeudela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Goiz Eguzkiko parkeari “Kardaberaz parkea” izena jartzea.
- 2.- Erabakiaren berri beste Erakundeetara bidertzea.
- 3.- Erabakiaren berri, Hernaniko Udaletxeko beste zerbitzuetan ematea.

7.- BEHEMENDI ETA AIAKO HARRIA PARKE NATURALAREN UDALBATZAREN ORDEZKARIEN IZENDAPENAK AIDATZEA. - Aztertu da Alkateak aurkeztu duen proposamena, Behemendi eta Aiako Harriak Parke Natural erandukeetarako Osoko bilkurak izendatu zituen Udalbatzaren ordezkariak.

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza batzordeak 2014ko uztailaren 14ean emandako irizpena.

Alkate jaunak bozketa egin du. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 10 (8 Bildu eta 2 EAJ/PNV).
- Kontrako botoak: bat ere ez.
- Abstentzioak: 1 Euskal Sozialistak.

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

Ordezkeri berriak izendatzea ondoko erakundeetan:

Behemendi:

Bilduren ordezkaria: Begoña Zuza Zabalegi (lehen Asier San Emeterio Otegi) eta ordezkoa Iker Goenaga Gubia.

Aiako Harriak Parke Naturala:

Bilduren ordezkaria: Iker Goenaga Gubia eta ordezkoa Begoña Zuza Zabalegi (lehen Asier San Emeterio Otegi).

8.- UDAL ERAKINEN GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATUAREN AIDAKETA ETA LUZAPENA. -
Aztertu da 2011ko abuztuaren 17an Udal Batzarrak Comercial de Limpieza Villar, S.A enpresari esleitutako zenbait udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratua, 1.151.513,47 €/urteko (BEZ barne) prezioan, bi urterarako iraupenarekin. Aipatu kontratua 2012ko maiatzaren 29 ko Udal Batzarraren akordio bidez aldatu egin zen, eta 2013ko abuztuaren 27ko Udal Batzarraren akordio bidez, beste urte betez luzatu zen (2014ko abuztuak 31 arte).

Aztertu da Udal Zerbitzuetako Aparejadoreak 2014ko uztailaren 10ean eginiko txostena kontratua beste urte batez luzatzea eta kontratua aldatzeko proposatuz, bertan dionez Enpresak bere adostasuna adierazi du.. Proposatzen dituen aldaketak, bi izango lirateke:

- 1.- Iaubidietako ikastelxean , garbiketa orduak asteen 30 ordu izatetik 35 ordu izatera pasa dela eta honek hilabetean 357,17 €ko igoera (urtean 4286,04 € BEZ barne) suposatzen duela.*
- 2.- Udal jolas igeriluetan, azken bi udaratan ikusi denaren ondoren , garbiketa egoki bat edukitzeko, hasieran aurrikusitako orduak ez direla nahikoak eta 265 ordu gehiago behar direnaren estimazioa egiten dela, 5.771,7 € (Bez barne) gehiago suposatuz.*

Aztertu da Kontratazio teknikariak 2014ko uztailaren 11ko datarekin eginiko txostena.

Kontutan hartuta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko beharrezko aldaketak direla, eta hau interes publikoko arrazoia izanik

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza batzordeak 2014ko uztailaren 14ean emandako irizpena.

Alkate jaunak bozketa egin du. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (8 Bildu eta 1 Euskal Sozialistak.*
- Kontrako botoak: bat ere ez.*
- Abstentzioak: 2 EAJ/PNV .*

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

Lehenengo.- Comercial de Limpieza Villar, S.A enpresarekin sinatutako Hernaniko zenbait udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratuaren 2. aldaketa onartzea, honako baldintzatan:

- 1.- Iaubidietako ikastetxean , garbiketa orduak asteen 30 ordu izatetik 35 ordu izatera pasako dira, honek suposatuko du, indarrean dagoen prezioarehiko 357,17 €-ko igoera (BEZ barne, hilabetean), hau da, 4286,04 € (BEZ barne, urtean).*
- 2.- Udal jolas igerilekuen garbiketarako 265 ordu gehiago behar direnaren estimazioa egiten da, urtean 5.771,7 € (Bez barne) gehiago suposatuz.*

Aldaketak daraman gastu gehikuntza: 10.057,74 €/urtean (Bez barne)

Kontratuaren prezioa: 1.197.141,69 €/urtean (% 21 Bez barne)

Ondorioak: 2014ko irailak 1etik aurrera.

Gastu hori: 1.0500.227.01.435.00 aurrekontu partidaren kontura egingo da

Bigarren.- Aipatu Kontratua beste urte batez luzatzea, 2015eko abuztuak 31 arte, hain zuzen.

Hirugarren.- Limpiezas Villar S.A esteipendunak jarritako behin betiko bermea dagokion kopurura egokitu beharko du: (49.468,66 € kopurua).

Laugarren.- Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunari, edo haren ordezkari izendatzen duenari, kontratua sinatzeko ahalmena ematea.

9.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, DOKUMENTUEN ERREGISTROETAN ESKABIDEAK, IDATZIAK ETA JAKINARAZPENAK AURKEZTEARI BURUZ. - Aztertu da 2014ko uztailaren 18an egindako txosten juridikoa, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin azaroraren 26ko 30/1992 Legearen 3.4.b) artikulua araberako Udal Dokumentuen Erregistroan idatziak aurkezteko lankidetzaren sinatzeko proposamenaren aldekoa.

Hitzarmenaren helburua herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanak erraztea da.

Ikusirik apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2.p) eta 42.2.h) artikulua arautzen dutena.

Aztertu da Bozeramaileen-batzordeak emandako irizpena.

Udalbatza legez eta izatez osatzen duten 17 zinegotzietatik bertan 11 zedela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin azaroraren 26ko 30/1992 Legearen 38.4.b) artikulua araberako Udal Dokumentuen Erregistroan Gipuzkoako Foru Aldundira eta horien menpeko edo atxikitako zuzendutako publikoko erakundeei zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenak aurkezteko lankidetzaren berri eman da Osoko Bilkuran eta hitzarmenaren zirriborroak aurkeztuak izan diren moduan onartzea, hain zuzen ere, hitzarmena Gipuzkoako Foru aldundiak egokitu baitu; eta beraren testu osoa akta agiri honi gehitzea*

- 2.- Osoko Bilkurak hartutako akordioaren ziur-tagiria igortzea Gipuzkoako Foru Aldundira, beraiek hitzarmena egokitu dezaten, jakinaraziz Hernaniko Udalak bi erregistro-egoitzatan emango duela zerbitzua (Udaletxeko egoitzan eta Ereinotzu Toki Entitate Txikiaren egoitzan).
- 3.- Alkateari esku ematea, Udalaren izen eta ordezkaritzan onartutako hitzarmena sinatzeko.
- 4.- Sinatutako hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarki Taulan iragartzea
- 5.- Ereinotzuko Auzo Batzarrari hartutako akordioa jakinaraztea.

10.- EASEREN ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, DOKUMENTUEN ERREGISTROETAN ESKAIBIDEAK, IDATZIAK ETA JAKINARAZPENAK AURKEZTEARI BURUZ. - Aiztertu da 2014ko uztailaren 18an egindako txosten juridikoa, Hernaniko Udalak Eusko Jaurlaritzarekin azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4.b) artikulua araberan Udal Dokumentuen Erregistroan idatziak aurkezteko lankidetzaz hitzarmena sinatzeko proposamenaren aldekoa.

Hitzarmenen helburua herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanak erraztea da.

Ikusirik apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2.p) eta 42.2.h) artikulua arautzen dutena.

Aiztertu da Bozeramaile-batzordeak emandako irizpena.

Udalbatza legez eta izatez osatzen duten 17 zinegotzietatik bertan 11 zehudela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Eusko Jaurlaritzarekin azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4.b) artikulua araberan Udal Dokumentuen Erregistroan Eusko Jaurlaritzara eta horien menpeko edo atxikitako zuzenbide publikoko erakundeei zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenak aurkezteko lankidetzaz hitzarmenaren berri eman da Osoko Bilkuran eta hitzarmenaren zirriborroa aurkeztua izan den moduan onartzea, hain zuzen ere, hitzarmena Eusko Jaurlaritzak egokitu baitu; eta beraren testu osoa akta agiri honi gehitzea
- 2.- Osoko Bilkurak hartutako akordioaren ziur-tagiria igortzea Eusko Jaurlaritzara, beraiek hitzarmena egokitu dezaten, jakinaraziz Hernaniko Udalak bi erregistro-egoitzatan emango duela zerbitzua (Udaletxeko egoitzan eta Ereinotzu Toki Entitate Txikiaren egoitzan).
- 3.- Alkateari esku ematea, Udalaren izen eta ordezkaritzan onartutako hitzarmena sinatzeko.
- 4.- Sinatutako hitzarmena Euskal Herriko Agin-taritzaren Aldizkarian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarki Taulan iragartzea
- 5.- Ereinotzuko Auzo Batzarrari hartutako akordioa jakinaraztea.

11.- PALESTINAKO HERRIAREN ANDEKO ETA ISRAELIEN GERRA ERASOAREN AURKAKO MOZIOA. -

Alkateak dio BIQUK eta EAJ/PNVk bazutela bere mozio propioak baina erretiratu egin dituztela eta aurkeztutakoarekin bat egiten dutela.

Hernaniko Kooperazio taldeak honako mozio hau aurkeztu du Hernaniko Udalbatzak onar dezan:

PALESTINAKO HERRIAREN ANDEKO ETA ISRAELIEN GERRA ERASOAREN AURKAKO MOZIOA.

AZALPENA

Zinez lazgarria da guretzat hildakoen eta suntsitutako ondasunen kopuruak gora egiten ikustea Israeliek Gazako Zerrendan egindako azken erasoaren ondorioz. Palestinako Giza Eskubideen Zentroaren arabera, orain arte 700 lagunetik gora erail dituzte krudelki, horietako ehuneko 80 haurrak, emakumeak eta adinekoak. 4.000 pertsonatik gora zaurituak eta milaka eta milaka desplazatuak.

Bonbardaketak etengabeak izan dira gau eta egun, batik bat Gazako Zerrendako lurraldean. Israelgo armadaren jomuga biztanle gehien zuten herriak izan dira, eta erabat suntsitu dituzte auzo osoak, ospitaleak, ambulantiak, mezkitalak, elbarrituentzako zentro berezi bat, saneamendu sistema, ur hornidura sistema, etab.

Gazako Zerrendako biztanleen kontrako eraso berri honek eta Israeliek duela 7 urtetik gora jarritako blokeoa argi eta garbi zigor kolektiboko modu bat dira, humanitatearen aurkako krimena, Genevako laugarren Hitzarmenak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak debekatua.

“Ertz Babesle” operazioak Israeliek Gazako zerrendari lehendik ere egiten zion jazarpen etengabearen eta okupazioaren ondorioz zegoen hondamendi humanitarioa okertzea ekarri du, azaldu ezinezko neurrian. Blokeoaren ondorioz Gazako Zerrendako biztanle Palestinarren %70 laguntza humanitarioaren mende bizi zen, eta lehendik ere jasandako eraso Israeldarrek sortarazitako kalle eta sarraskilik errekuuperatzea galarazi zaie, “Berun Urtu” operazioa eta “Defentsarako Zutabe” operazioa barne.

Sarraskiak ziklikoak dira Gazan eta, hala izanik ere, nazioarteko komunitateak ez du Israelgo estatuaren aurkako inolako neurririk hartu orain arte. Txostenak txosten eta ebidentziak ebidentzia, gerra krimen eta humanitatearen aurkako krimen hauen erantzukizuna duen Israeldar arduradunik ez da gaurdaino auzipetu. Guztiz larria da guretzat Nazioarteko Komunitateak (AEBk eta Europako Batasuneko herrialdeek bereziki) Israelgo estatuaren inpunitatea bermatzea eta estatu erasotzailearen “autodefentsarako eskubidea” defendatzea Palestinako biktimak errekonozitu beharrean (nazioarteko araudiak eskatzen duen moduan).

Israeliek uko egiten dio nazioarteko ebazpenak betetzeari eta Palestinako biztanleen giza eskubiderik funtsezkoenak ere errespetatzeari.

Prosamena:

- 1.- Israeliek Gazako Zerrendan “Marko Babeslea” izenaz jarritako zigor kolektiboa -nazioarteko araudiak debekatutakoa- salatzen eta arbuiatzen du. Eta aldi berean eskatzen dio Israeli eten ditzala berehala eraso hauek eta Nazioarteko Komunitateari behartu dezala Israel hori egitera.*
- 2.- Salatzen du, halaber, Israelgo estatuak nazioarteko legeria urratzen duela behin eta berriz.*
- 3.- Europako Batasunari eta Estatu Espainiarreko Gobernuari eskatzen die Europako Batasunaren eta Israelen artean indarrean dagoen elkartze-erabakia etetea, elkartze-erabaki horren bigarren artikulua, hausten duelako (giza eskubideei buruzkoa).*
- 4.- Nazioarteko komunitateari eskatzen dio ber-tan behera utz dezala Israeli inpunitatean mantentzen laguntzen dion konplizitate hori eta indartu ditzala presio neurri guztiak, dagozkion zigor guztiak barne, Gazako erasoak eta blokeoa berehala buka daitezten.*

- 5.- Nazioarteko komunitateari eskatzen dio Israelgo estatuari exiji diezaiola suntsitu duen guzti-guztia ordain dezala. Gerra krimenengatik erantzun beharra dauka nazioarteko epaitegietan.
- 6.- Erakunde publiko guztiei eskatzen die eraso berri hau sala dezatela eta Israelekiko harreman guztiak hautsi ditzatela. Era berean proposatzen du BDZ kanpainarekin (Boikota, Desinbertsioak eta Zigorrak) bat egitea harik eta giza eskubideak gehiago urratzen ez dituen arte eta nazioarteko legeak betetzen dituen arte.
- 7.- Herritarrei dei egiten die Israelen eraso berri hau irmo gaitzez dezatela eta Palestinako herriarekiko elkartasuna erakuts dezatela uztailaren 30ean, asteazkena, ilunabarreko 20:00etan Plaza Berrian egingo den elkarretaratzean parte hartuz.

AHO BATEZ MOZTOA ONARTZEN DA.

EGUNEKO AZTERGAI ZERRENDATIK KANPO ETA PREMIATZKOA DELA IKUSI ONDOREN ERABAKI HAU HARTZEN DA:

12.- 2014KO PLANTILLA ORGANIKO ETA LANPOSTUEN ZERRENDA AIDATZEA. - Alkateak 2014ko uztailaren 28ko Dekretu bidez "Enplegu Plana: Hernaniko Udalaren giza baliabideak zentzuz erabiltzeko eta antolatzeko Programa" dokumentua onartu du.

Honen baitan Plantilla Organiko eta Lanpostuen Zerrenda islatu beharreko hainbat neurri jaso dira.

Hortaz, beharrezkoa da 2014 ekitaldidiko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda aldaketa izapidetzea.

Espedientean dagoen txosten juridikoa azertuta.

Udalbatza legez eta izatez osatzen duten 17 zinegotzietatik bertan 11 zeudela, hau erabaki da aho batez:

LEHENENGOA.- 2014ko Plantilla Organiko eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketari hasierako onarpena ematea eta jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egun belagarriz. Epe horretan erreklamazioarik egiten ez bada, behin betiko onarturik geldituko dela ohartaraztea. Aipatu dokumentuak erabaki honen 1. eta 111. Eranskin gisa doaz hurrenez hurren.

BIGARRENA.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

13.- ERREGLU ETA GAITZERAK.

Andoni Amonarraiz (EAJ-PNV):

Langile baten kaleratzeari buruz esan du gobernu taldeak ez diola oposizioari horren berri eman hilabete oso batean.

Eskatu du, halaber, birplantea dadila planteatu den antolaketa eredua, izan ere eredu horrek Udalaren pisu guztia teknikari baten esku uzten baitu.

Azkenik esan du udal honetako teknikari batek oker informatu ziola zinegotzi bati udalarekin lan egiteko baleraezintasunari buruz. Hala ere, hori informatu zuen pertsona oker informatu zuenean betetzen zuen lanpostua eskuratzeko aurkeztu da eta jakin nahiko luke ea horri dagokionez zerbañt egin ote den.

Eskatu du erantzun bat eman dakiola, osoko bilkura honetan ez bada ere behintzat irailekoan.

Alkate-lehendakari jaunak hau erantzun dio:

Ekainaren 27ko dekretuaren berri eman ez duela ez da egia, bozeramaileekin hitz egin baita. CPG-k diagnostiko bat egin dio udalaren egoerari eta udalaren zerbitzu juridikoei buruz, eta plantamendu batzuk egin dizkio aurre egiteko egoera horri, antolaketa dilugun hutsune eta gabeziei aurre egin ahal izateko, baliak bat HHZ planteatzen ari den momentuan, non espedienteen normalizazioa erabat garrantzitsu eta beharrezkoa bihurtzen ari baita. Pertsonaren aukeraketaren arrazoia zera izan dela dio: momentu honetan Udalak zerbitzu juridikoetan duen karrerako funtzionario bakarra dela.

Kontuan izanda idazkari berri bat izango dugula, pertsonaleko AOTren eszedentzia bukatuko dela, eta hilabete batzuk pasata egoera desberdina eta iraunkorragoa izango dela adierazten dio.

Besteak hurrengo plenoan azalduko dizkiola adierazten du.

Andoni Amonarraiz (EAJ-PNV):

Andonik esan du langile bat botatzea ez dela Bozeramaileen batzordean komentario bat eginez konpontzen eta oraindik ez dakitela zergatik bota duten.

Alkate-lehendakari jaunak hau erantzun dio:

Bozeramaile batzordean hitz egin zen eta txostena eskuragarri duzu.

Beste aztergairik ez dagoenez bilera 19:50 orduetan bukatu da, eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatzen dut.